

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoen atalean hasteko tailer edo lokal handi bat alokatzea pentsatu dugu lehen aleak ekoizten hasteko, gainera, lokal handi hau Bilbon kokatuta egotea eskertuko genuke gure produktuaren esportazioa lagunduko lukelako. Bestalde, produktuaren salmenta aterkin dendetan eta supermerkatuetan burutuko genuke, denda hauek estrategikoki hautatuko genituzke, leku dirudunetan kokatuz, produktua ez delako espezializatuko merkea izatearren eta ingurune euritsuetan kokatuz bertan salmenta gehiago egongo direlako, horrez gain, gure webgune propioa garatuko genuke online bidez produktuak saltzeko eta korreo bidez banatuko genituzke, horrela, merkatuko segmentu handiagoa bilduko genuke.



Baliabide intelektualetan eta giza baliabideetan barneratuz esan dezakegu guk ez ditugula ezagutza nahikoak aterkin horren diseinua eta sorpena burutzeko. Beraz, ingeniero talde bat kontratatuko genuke sortzeko, sorkuntzaren ostean patentea lortuko genuke aterkin hauen monopolioa lortzeko eta proiektua ondo badao gu izateko saldu ahal izango dituen bakarra.

Finantza-baliabideen aldetik, gu gazteak izanik ez dugu diru asko. Hasteko, ondo informatuko gara eusko jaurlaritzak ematen dituen diru laguntzetaz, adibidez gazte ekintzaileentzat dauden diru laguntzak eskatuko ditugu eta gure aurrezkietatik ere pixkat jarriko dugu, horrez gain, bankuari kreditu bat eskatuko genioke eta gure enpresa burtsan jarriko genuke inbertsoretatik dirua lortzeko.